

ORIXE

1977-gaŕen urte ontako ilbeltzean uŕetxuaŕ iesulagun ARGARATE ikusten izana naiz. Biok izketan ari eta ari, alako-xe batean Orixe zanaren MIREIO irten zitzaigun. Bertantxe uŕetxuaŕak emen aurkituko duzuten eskutitza erakutsi zidan. Gerorxeago eskutitza neretzat beŕ-idatzi nuan eta iñork argitaratu nai balu EUSKERA aldizkarira bialtzea gogoratu zait.

Etxebeŕia'taŕ P. s. j.

Orexa'tik 1933'gaŕ. Ofilaren 5'gaŕenean

Argarate, Zaitegi et reliquis adiskide onak:

Ez duzu lan makala artu, Argarate, iztegiño oriekin, eta neri ez makalagoa eman. Egun otan beaŕik aŕapatu nazu eŕi-ko pesta-buru egunetan, utsarteak betetzeko. Itz asko samar daude oker, ta ala beaŕ nai ta nai ez, erderazko (gaztelerazko) itza aldatzentxe bai nun zenbait aldiz, eta euskal-tzari adierazpen zabaltxegoa eman ere bai. Eskeŕik asko. Enun ofenbesterik ezta gutxigorik merezi. Ta auŕe-aldeko bertsoak? Gaia ta *intzentsua* alde batera dirala, goxoak eta bizkoŕak dira. Mireio presakatxo itzulia dut, ia zalapartan (idatzi beintzat). Ez dut adierazi nai, gogoan ongi erabili gabe egingako lana dudarik, baina oŕaztuagoa atera ziteken. Ontan ari naizela, zure beste idazkia datorkit. Ene! Zer galde egiten didazu? Nere erderazkoak *tomillo* ordeŕ *tobillo* yartzen zula, nik zeren obena daukat? Zuk bezala proventzerazkoa ta prantsesa izan ba'nitu, ez neri olakorik gertatuko. Adiskide batek Oyartzabal'ek esan neri, urtearen erdi aldera, Mistral'en eun urtegaŕena zala ta Mireio euskerara itzultzeko. Euskaltzaindiaren batzaŕean Donostian nintzala esan zida, eta andik Bilbao'ra iristean Lauaxeta'rekin ontaz itzegin eta beronek eman zidan catalan baten gaztererazko itzulpena. Nik besterik ez dut ikusi, Andik urtearen bururako Euskaltzaindikoko lan, EUZKADI'ko ta abar, egizu gainera lan ori.